
#astekonomia

Urriaren 19tik 23ra bitarteko astea

Esportazioen hazkunde handia abuztuan

Atzerrira esportatutako ondasunen balioa

Urte bakoitzeko abuztua. Milioiak




Iturria: Eustat.

Abuztuan, atzerrira bidalitako euskal esportazioak %19,1 gehitu ziren urte batetik bestera. Datu honekin uztailean ikusitako bilakaera ona finkatu da, eta urtarriletik abuztura metatutako hazkundea urte arteko %3,5era iritsi da. Produktu motaren arabera, abuztuan hazi egin ziren bai produktu energetikoen (%172,3) bai produktu ez-energetikoen (%13,3) esportazioak, 2025eko hilabete beraren aldean.

Autoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

Turismoen matrikulazioa Euskadin

Urte bakoitzeko urtarriletik irailera metatua



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).


Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratu berri dituen datuen arabera, **urteko lehen bederatzi hilabeteetan 26.460 auto matrikulatu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %4,4 gehiago**. 2025eko hazkunde handiaren ondoren, turismoen matrikulazioak ibilbide positiboa izan zuen, baina hazkunde apalagoak izan zituen 2026an.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Gaualdiek gora egin dute berriro irailean

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Eustat.

Eustaten arabera, **irailean 786.007 gaualdi erregistratu ziren Euskadiko hotel establezimenduetan, hau da, %5,0eko gehikuntza 2025eko hilabete beraren aldean.** Hau, serie historikoko zifrarik altuena da hil honetarako. Gainera, batez besteko egonaldia 2,07 egunekoa izan zen, 2025eko irailekoa baino hamarren bat handiagoa.

Euskadiko langabezia tasa %6,6an kokatzen da

Langabezia tasa EAEn

Ehunekoak



Iturria: Eustat.

BJA inkestaren arabera, **langabezia tasa %6,6an kokatu zen 2026ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago.** Zehazki, 71.400 pertsona zeuden langabezian, aurreko hiruhilekoan baino 3.100 gutxiago. 2025eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, 2.100 pertsona gutxiago zeuden langabezian, eta tasa %6,8tik %6,6ra jaitsi zen